

Julio Hierro berriz epaitzeko agindu du Gorenak, tortura kasuak direla eta

Kasu beragatik kondenatu polizien errekurtsua atzera bota eta zigorra berretsi du

Inaki Uriarte / Bilbo

▶ **Espainiako Auzitegi Gorenak baztertu egin du Pedro Laiz, Jesus Esteban eta Paulino Navarro poliziek Jose Ramon Quintana eta Pedro Otero torturatzeagatik kondenatu zituen zigorraren aurkako errekurtsua. Hiru horien zigorrak berrestez gain, Julio Hierro poliziburuaren aurkako akusazioa indarrean dagoela ebatzi du.**

JULIO HIERRO MOSET epaitu egingo dute Bizkaiko Entzutegian, beste epaimahai batek, Jose Ramon Quintana eta Kepa Otero Iraultza erakundeko militanteei egindako torturretan parte hartzeaz akusatuta. 1997ko otsailaren 17ko epaian Bizkaiko Entzutegiak frogatutzat jo zuen Quintana eta Otero torturatu egin zituztela 1984an, Frantziako banketxe batean lehergailu bat jarri ostean Poliziak atxilotu zituenean.

Atzo emaniko epaian Espainiako Auzitegi Gorenak ez du aintzat hartu hiru poliziek jarritako errekurtsua, eta horren ondorioz polizien aurkako zigorra finkoa da. Gorenak onartu du, ordea, akusazio partikularrak aurkeztu zuen errekurtsua, eta, hori dela eta, Julio Hierrok aurre egin beharko dio akusazioari, delituak ez duelako preskribitu.

Epaietan, fiskalak hala eskatuta, epaimahaiak ebatzi zuen Hierroren ustezko delituak preskribitu egin zuela; aintzat hartu gabe bost urte-



TXEMA FERNANDEZ / EFE

Julio Hierro polizia ohia, Bilbon torturengatik epaitu zutenean, akusatuen aulkian eserita.

ko epea igaro aurretik torturatuetak batek zutenean akusatu zuela gertakizunetan parte hartu izanaz. Fiskalak ez zuen aintzat hartu 1988ko maiatzaren 27an torturatu batek parte hartze zuzena egotzi ziola.

Zuzenbide oinarrietan, Andres Martinez Artieda txostengile duen epaimahaiak ez du aintzat hartzen polizien errekurtsua, ez dagoelako frogaren balorazio okerra finkatu ahal izateko dokumenturik. Babes eraginkorrerako eskubidea eta ustezko errugabetasun eskubidea ez zitzaizkiela aintzat hartu arra-

zoitu zuten poliziek errekurtsuan.

Jipoiak eta elektrodoak

Duela urtebeteko epaiak frogatutzat jo zuen Quintanak kolpe eta ostikadak jaso zituela saman eta barrabiletan. Bestalde, aita eta neskalaguna atxilotuko zizkiotela mehatxatu zuten. Beste atxilotua, Otero, aurpegian eta barrabiletan jipoitu zuten ziegetan zegoela. Hurrengo egunean, 1984ko otsailaren 3an, Bibriescara eraman zuten Pedro Laizek eta beste bi

agentek, eta han berriro jipoitu zutela dio epaiak. Halaber, elektrodoak jarri zizkiotela frogatutzat jo zuen Bizkaiko epaitegiak.

Epaitegiak bina hilabeteko espetxe zigorra eta urtebeteko inhabilitazioa ezarri zien Navarro eta Laizi, eta hilebeteko kartzelaldia eta zortzi hileko inhabilitazioa Estebani. Bestalde, 600.000 pezetako kalte-ordaina eman beharko diote hiruren artean Quintanari (24.000 libera), eta beste horrenbeste Oterori. Dagoeneko epaia finkoa da, eta ordaindu ezean ordezkari erantzulea Estatua da.

Pako Gastesi preso aske geratu zen herenegun

■ *Duela urtebete espetxera itzularazi zuten, zigorraren hiru laurdenak beteta izan arren*

Erredakzioa / Donostia

▶ **PAKO GASTESI** Errenteriako preso herenegun irten zen aske Martuteneko espetxetik, bost urtez preso egon ostean. Baina ez ditu urte guztiak jarraian egin, duela urtebete inguru espetxera itzularazi baitzuten ezarritako zigorraren hiru laurdenak beteta izan arren.

Amnistiaren Aldeko Batzordeek atzo jakinarazi zutenez, Guardia Zibila 1992an atxilotu zuen Gastesi, eta bost egunetan inkomunikatuta eduki ondoren Entzutegi Nazionalera eraman zuten. Handik espetxera eraman zuten, eta 1996ko maiatza arte Espainiako hainbat espetxetan egon izan zen. 1996an, baina, aske utzi zuten Auzitegi Gorenak Gastesik jarritako errekurtsua aztertzea onartu baitzuen. Iaz Gorenak zortzi urteko zigorra berretsi zuen, eta Gastesi espetxean sartu zuten berriro, hiru laurdenak dagoeneko beteta zituen arren.

Hiru urteko zigor eskaera funtzionario bati espetxe araudia betetzeko eskatu zion preso batentzat

Erredakzioa / Donostia

▶ **CORUÑAKO** Penaleko 3. Epaitegiko fiskalak hiru urteko zigorra eskatu du Mari Cruz Cadaraso euskal presoarentzat, espetxe funtzionario bati Espainiako Espetxe Araudia betetzeko eskatzeagatik. Atzo hasi zuten epaiketa, Cadarso espetxean dela. Baina hark kalean egon beharko luke, hiru laurdenak iaz bete baitzituen.

Fiskalak funtzionario bati erasotzea leporatzen dio Cadarsori. AABek diotenez, baina, Cadarso lehen graduaz zegoela beste bi preso sartu nahi izan zizkioten ziegan, eta hark esan zuen bakarrik egoteko eskubidea zuela.

Trebiñoren auzia aztertzen duen liburu bat aurkeztu du UDA taldeko Roberto Gonzalez de Viñasprek

■ *Azken 60 urteetan herritarren borondatea zein den argi eta garbi gelditu dela dio Trebiñoko idazleak*

F.I. / Gasteiz

▶ **AZKEN** bi edo hiru urteetan eman du zeresanik Trebiñoko auziak, batez ere 1998ko martxoaren 8an erreferendumaren beharra aldarrikatu zutenetik. Horiek guztiak eta aurrekoak liburu batean bildu ditu Roberto Gonzalez de Viñaspre trebiñarrak, eta hilabeteotako lana atzo aurkeztu zuen, Txalaparta etxearen eskutik.

Zazpi kapitulutan laburbildu du Trebiñoren historia, egoera sozio-ekonomikoa, hizkuntzaren gatazka, Araban sartzeko ahaleginak eta azken urteotako gorabeherak. Eta idatzi ostean ondorio bat atera du egileak: Araban sartzeko arrazoi ugari daudela, eta ez direla oraingo kontuak, aspaldikoak baizik.

«Gaztelak adierazi du Trebiñoko udalek ez dutela arrazoirik eman bereizteko eta

Araban sartzeko. Nik, berriz, diot herritarren borondatea garbi azaltzen dela azken 60 urteotan. Hala ere, oraindik entzun behar dugu arazo politikoa dela, baina begi-bistakoa da soziologikoki, historikoki edo kulturalki Trebiño Araban dagoela», esan zuen, euskaraz, liburuaren egileak.

Bi mila aleko edizioa egin du Txalapartak, eta datozen egunotan liburutegietan izango da salgai. UDA elkarte

kideen arabera, Trebiñoko gatazka ulertzeko «ezinbestekoa» izango da liburua.

Gonzalez de Viñasprearen aburuz, berez arazo administratiboa dena politikoa bihurtu nahi dute, eta hori ez da egokiena arazoari irtenbidea emateko. «Arazoa ez da politikoa, zentzu oneko kontua baizik», esan zuen, eta gogora ekarri zuen XX. mendean Araban sartzeko bost ahalegin berezi egin direla.